

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure ezaugarri nagusietako bat **harreman zuzena** izango da gu geu, enpresaren sortzaile garenok izango baikara zuzenean gure proiektuaren aurkezleak inguruko udaletxeetara jo eta ezagutzera emanez. Bestalde, eskola edota haurrak egoten diren ingurune edo elkarteetara eramanez gure proiektua ezagutzera.

Argi dago egun hamaika bide eta tresna daudela ezagutzera eman eta jendearekin lotura izateko (sare sozialak, esku-orriak, kartelak, ahoz ahoko komunikazioa...) horregatik guzti hauen uztartzea aberasgarriagoa izan daitekeela uste dugu.

Udaletxeekin harremana zuzeneko izango da, kontaktuan jarri eta bai ekintzen aurretik zein ondoren kontaktuan jarri eta balorazio konstanteez gain eskakizun eta proposamen berriei garrantzia handia ematen baitiegu.

Gure eskaintza guztietan **feedback** harremana nahi dugu elkarreraginean lan egin eta ikasteaz gain gozaten dugularik, tailer edota ikastaro bakoitzak beste batekin lotu edota beste zerbaiteko jakinmina sortzen digu askotan beraz, hau komunean jarri eta hurrengorako proposamena izatea nahiko genuke.

Gure proiektuan interesa duten guzti horiekin harremana etengabekoa izan dadin, sare sozialez gain, noizbehinkako asanblada irekiak egingo ditugu ideia berriak proposatu, aurrekoak baloratu zein esperientziak konpartitzeko. Era honetan nahi duenak egiten dugun guztiaren gainean informatuta egon ahal izango da. Horrez gain, gure enpresako telefono zenbaki bat ere izango dugu beharrezkoa denean kontaktuan jarri ahal izateko edota informazioa zabaltzeko tresna bezala erabiliko duguna.